

aRarteko

Herriaren Defendatzailea *Defensoría del Pueblo*



Eusko Legebiltza-
rrentzako urteko
txostena. 2014ko
laburpena

17 zk.

AURKIBIDEA

00. AURKEZPENA	p. 02
01. ARARTEKOAREN JARDUERA ZENBAKITAN	p. 04
02. JARDUERAK	p. 06
03. GOMENDIO OROKORRAK	p. 14
04. TXOSTENAK	p. 16
05. AZTERLANAK	p. 18
06. HAUR ETA NERABEEN BULEGOA	p. 20
07. BESTELAKO JARDUERAK	p. 24
INFORMAZIO INTERESGARRIA	p. 30

ARARTEKO

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Lan hau Creative Commons Attribution 3.0 Unported (CC BY 3.0) lizentziapean dago.
Lizentziaren kopia bat ikusteko sartu hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/>





Aurten ere, gure lanaren laburpenarekin batera, aipatu beharra daukagu krisi ekonomiko eta soziala ondorio ikaragarri larriak izaten ari dela milaka familiaren egoeran.”

Atsegin handiz aurkeztera noa, berriz ere, Arartekoaren urteko txostena. Oraingoan, gainera, aurkezten dudan azkenekoa izango da, agortu baita erakunde edo bulego bikain honen buruzagitzan eman dudan bigarren eta azken aldia. Eusko Legebiltzarrak aukeratu ninduen zeregin horretarako, alegia, euskal herri-administrazioen jarduera, erabaki, ez-egite eta politika publikoen aurrean, pertsonen eskubideak babesten dituen goi mandatari izateko.

Aurten ere, gure lanaren laburpenarekin batera, aipatu beharra daukagu **krisi ekonomiko eta soziala ondorio ikaragarri larriak izaten ari dela** milaka familiaren egoeran. Gure erakundea eta egin dugun lana ere ez dira egoera horretatik kanpo geratu. Herritarrei kasu egiteko bulegoen bidez, telefonoz eta arreta telematikoaren bitartez, burubelari aritu gara gugana jo duten herritarrei aholkuak eta argibideak ematen eta, jakina, administrazioaren kontra azaldu dizkiguten kexak ebazten. Krisiak euskal gizartean izan dituen ondorioez bete-betean jabetu gaitezen, nahikoa da datu hau ematea izan dugun lan-gehitzeaz (batez ere krisiaren biktimen kexa eta eskaerengatik): 2010 eta 2014. urteen bitartean, kexak **4.400tik 6.378ra** areagotu dira, eta jarduera orokorra, berriz, **6.461etik 8.608 jardueratara** igaro da.

Informazioak herritarrak gaitu eta aktibatzen dituela eta sozializazio-iturri dela ohartuta, Ararteko erakundean **ahaleginak egin ditugu informazio pila bat emateko** gure web orriaren bitartez; gure orriak **100.000 bisitatik gora** jaso ditu 2014an, eta **200.000 orrialde baino gehiago ikusi dira**. Gainera, horrela, erraztu egin dugu baliabide publikoak kudeatzeko orduan bete beharreko gardentasun printzipioa betetzea eta herritarrek Arartekoarekin dituen

eskubideak baliatzea, gure Zerbitzu eta Konpromisoen Kartan ezarritakoarekin eta informazio publikoa jasotzeko eskubidea eta datu pertsonalak babesteari buruzko eskubideak gauzatzearekin bat etorritz.

Ararteko erakundearen eragingarritasun-mailak gora egin du, aurten ere. Gure eskaera eta ebazpenak herri-administrazioentzat nahitaez bete beharrekoak ez badira ere, administrazioak kasuen **%91,76tan** onartu du bere borondatez gure eskaera edo gomendioa. Orobat, Arartekoan ahalegin handia egin dugu epeak laburtzeko eta gure zerbitzuak erabili dituztenei ahalik eta azkarren erantzuteko: gure prozedurek, batez beste, **81 egun** iraun dute. Arartekoan etengabe egiten ari garen hobetze-lana sari bat emanez aitortu digute, Euskalit erakundeak **kalitatearekin dugun konpromisoa** saritu baitigu.

Bukatzeko, berriro adierazi nahi dut zein baliotsua den gizarte-erakundeek, **GKEek** eta horietan beharrean dabilzan **gizarte-boluntarioek** egiten duten lan aparta, inklusio eta kohesio sozial handiagoak izango dituen gizarte zuzenagoaren alde, giza eskubideen alde eta behartsuen alde. Eskerrik asko.

Iñigo Lamarca Iturbe
ARARTEKOA


ARARTEKOAREN JARDUERA ZENBAKITAN

2014an barrena, Arartekoak guztira **8.608 jarduera** burutu ditu. Herritarrek **6.378 kexa** egin dituzte eta **68 espediente bideratzen hasi gara ofizioz**. Arloen arabera, nabarmentzekoak dira Haur eta Nerabeentzako Bulegoari dagozkionak, baita ere adinekoekin, mendekotasun egoeran dauden pertsonekin, gizarte-bazterketarekin eta segurtasunarekin lotutakoak.

Informazio horretatik hauxe ondoriozta daiteke: 2010. urtearen aldean (orduaz azaleratzen hasi ziren krisiaren ondorioz larriak), herritarren kexak %45 gehitu direla, batez ere eduki ekonomikoko gizarte-prestazioei buruzko kexa ugariengatik.

Gainera, **2.065** jarduera burutu ditugu informazio eta aholku eske egin dizkiguten telefonozko kontsulten ondorioz, eta **93 bilerak** egin ditugu era askotako **gizarte erakundeekin** eta **57 bilerak** hainbat **administrazioekin**.


Arartekoaren jarduera guztiak 2014an



● Kexak	6.378
● Informazioa eta aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez	2.065
● Laneko bilerak gizarte erakundeekin	93
● Laneko bilerak administrazioekin	57
● Ikuskapen-bisitak	8
● Jendearentzat irekitako jardunaldiak	4
● Gomendio orokorrak eta azterlanak	3

GUZTIRA
8.608

Arartekoari 2014an egindako kexak



GUZTIRA
6.378

Arartekoaren **web orria** (www.ararteko.net) informazio-bide eta euskal herritarrekin harremanak izateko bide bilakatu da. Horren adierazgarri da ia **100.000 bisita** jaso direla eta, aurretik, 200.000 orrialde inguru ikusi direla bertan.

2014. urtean kexa idatzien **2.050 espediente** ebatzi ditugu eta **1.675 ebazpen** eman ditugu. Gainontzeko kasuetan, kexak gerora ez dira onartu, hainbat arrazoiengatik: beste herriaren defendatzaile batzuekin bikoiztasuna, epailearen erabakiaren zain edo epai irmoa zuten gaiak, auzibidean jarritakoak, e.a. Ebazpenen arabera, 791 kasutan, eragindako administrazioaren **jarduera okerren bat** zegoen tartean, hau da, kasuetatik **%50,84tan**. Hala ere, ez da jarduera okerrik ikusi aztertutako espedienteen ia erdietan (%49,16).

Eragindako administrazioak kexa sorrarazi zuen jarduera zuzendu eta aldatu du kasuen **%91,76tan**. Gehienetan ez da gomendio formalik bidali behar izan administrazioak Arartekotik helarazitako proposamena onartzeko. Datu hori aztertutako urteetako altuena da eta agerian jartzen du, berez, Arartekoaren esku-hartzeak **eragingarritasun-maila handia duela**.

Bideratu diren kexa-espeditenteak zer **arlorekin** lotuta dauden kontuan hartuta, ikusten dugu 2014an behera egin dutela **gizarte-bazterketaren kontra borrokatzeko tresnekin** zerikusia duten kexak: 604 (883 aurreko urtean). Horietatik %96tan **Lanbideren** funtzionamendu okerrarekin lotutako arazoak aipatzen dira, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) kudeatzean egin dituen jarduerak.


Horrez gain, Arartekoak bideratu dituen kexa-espeditenteen artean, ia **%50ek eskubide sozialekin dute lotura** (hezkuntza, osasuna, gizarteratzea, etxebizitza, e.a.).

Era berean, nabarmentzekoa da espeditente horietatik **%38k** gutxi gorabehera zerikusia dutela pertsona guztien **benetako berdintasun eragingarria** bermatzeko **politika publikoekin**. Hori lortzeko, kendu egin behar dira pertsona jakin batzuei eskubide hori baliatzea eragozten dieten trabak. Pertsona horien artean daude emakumeak, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak, adinekoak, haur eta nerabeak, ezgaituak, LGTBak, etorkinak, ijitoak, e.a.

Bideratutako espeditenteen artean, administrazio bakoitzari zer ehuneko dagokion adierazten duten datuen arabera, aurreko urteetan bezalaxe, Eusko Jaurlaritzaren kontra egin dira kexa idatzi gehien (%62,11), eta zertxobait gora egin dute euskal udalen jarduerari dagozkienek (%27,92).

Edonola ere, espeditenteetan nahastuta dauden administrazioak aztertzeak ez du esan nahi administrazio horiek jarduera okerren bat egin dutenik, baizik eta beren jardueretako batek kexa sorrarazi duela, besterik ez.

Bideratutako espeditenteen banaketa, eragindako administrazioen arabera



GOGO BETETZE MAILA


Duela urte batzuk, herritarrengana hurbiltzeko bide bat hasi genuen, gure esku-hartzea eskatu duten pertsonen iritzia jakiteko asmoz. Erakundearen jardunean dauden ahulguneak ezagutu nahi ditugu, eta gure zerbitzua hobetzen ahalegindu.

Kexen biderapena bukatu ostean, kexaren bat egin duten herritarretatik %70ek uste dute “*emandako informazioa ona edo oso ona izan dela*”.

Kexagileen %84ren iritziz, jasotako arreta ona edo oso ona izan da, eta gehienei iruditzen zaie Arartekoaren esku-hartzea onuragarria izan dela.

Gainera, %74k uste dute Arartekoaren irudia eta sinesgarritasuna onak edo oso onak direla gizartearen eta administrazioaren aurrean.

Oro har, nolakoa iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)





FAMILIA BATI ESTOLDERIAGATIK MODU OKERREAN KOBRATUTAKO ZENBATEKOAK ORDAINDU DIZKIOTE

Familia batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen ez zegoelako ados Erandioko Udalaren jardun batekin. 2013. urtean familia honek estolderia tasa gisa ordaindutako kopuru batzuk itzultzeko eskatu zuen, Udal Sareak jakinarazi zien bezala euren etxebizitzan ez zuelako estolderia publikoak zerbitzua ematen. Udalari arazo zehatzaren inguruko txosten bat eskatu genion eta azpimarratu genuen administratuentzat administrazioaren isiltasunak sortu dezakeen kaltea eta administrazioak herritarrek aurkezten dituzten idatziak erantzuteko duen betebeharrak. Udalak adierazi zigun 2010. urteari zegokion likidazioa balio gabetuko zuela eta 2011, 2012 eta 2013 urteei zegokien gaizki ordaindutako kopuruak itzuliko zituela. Egiaztatu zen kexagileen izenean dagoen garbiketa bakarra 2004. urtekoa dela eta Udal Sareak baieztatu zuen 2012. urtetik ez duela hobien garbiketa egiten. Udalaren ebazpenean egiaztatu da etxebizitzaren inguruan ez dagoela estolderia-sare publikorik, ezta gune isolatuetan hobi septikoak garbitzeko zerbitzurik ere. Udalak bere jarduna zuzentzeko neurriak hartu dituen arren, eremu berdineko higiezinaren titularren preskribatu gabeko likidazioak ofizioz berrikusi beharko litzuzke.

ETXEBIZITZA BATEN MAIZTERRARI ERREKLAMATZEN ARI ZIZKIOTEN ZABOR-TASAREN HIRUHILABETEKO ORDAINAGIRIAK BALIOGABETU DITUZTE

Pertsona batek Bermeoko Udalaren jardunarekin zuen desadostasuna azaldu zigun, 2012ko ekainean alokatuta zuen etxea utzi zuen eta oraindik etxebizitza horren zabor-tasa erreklamatzeko jarraitzen ziolako. 2013ko martxoan konturatu zen udalak hiruhilabeteko ordainagiriak pasatzen jarraitu zizkiola, eta eskatu zuen alokairua utzi zuenetik kopuru hori jabetzari erreklamatzeko. Udalak 2013ko hirugarren hiruhilabetetik aurrera egin zion kasu eskariari eta alokairu-kontratua 2012an iraungi zela egiaztatze dokumenturen bat aurkezteko eskatu zion. Kaltetuak ez zuen dokumentazio hori, baina egia zela, udalerriko beste etxebizitza batean erroldatu zela, udalerriko gizarte zerbitzuek bazekitena. Udalari informazioa eskatu genion eta Toki Ogasunen Foru Araudia azpimarratu genuen, zabor-tasaren erregulatuzailearen araudiaren aurreikuspenei egokitu behar diren arauak. Udalak onartu zuen 2012ko laugarren hiruhilabetetik aurrera zabor-tasa ordaindu behar duena higiezinaren jabea dela, eta beraz, kexagileari erreklamatzeko ari zizkion likidazioak balio gabetuko ditu.



BECeKO LANGILEEK MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONEN ESPARRURAKO SARRERA ERRAZTUKO DUTE

Pertsona batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen berak eta bere bikoteak Bilbao Exhibition Centren (BEC) antolatutako Biokultura azokan sartzeko izan zituzten zailtasunak zirela eta. Pertsona hau eta bere senarra **mugikortasun murriztua duten pertsonak dira** eta mugitzeko makuluak behar dituzte. Azoka honen harira BECera joan ziren, bi sarrera ilara zeudela: bat sarrerak erosteko eta bestea pabilioian sartzeko. Ezgaitasunen bat edo mugikortasun urritasuna duten pertsonak esparrura sartzeko xedatutako protokoloa zein zen galdetu zuten, eta erantzun zieten ez zegoela ezer xedatuta eta irtenbideren bat eskatzeko sarrerak saltzeko leihatilara heldu arte itxaron behar zutela. Leihatilan jakinarazi zieten **kasu horietarako ez zegoela ezer aurreikusita**, beraz, sarrera eremura hurbiltzeko edota nolabait euren pabilioirako sarrerari lehentasuna emateko eskatu zuten, baina esparruko langileek ezezko borobila eman zieten. BECeKO arduradunen kolaborazioa eskatu genuen, makilak edota mugitzeko beste elementuren bat erabili behar dutenek arazo larriak dituztelako denbora luzez itxoiten egoteko ekitaldi edo esparru batean sartzeko. Araudiaren arabera, ezgaitasuna duten pertsonak batzuetan topatzen dituzten oztopoak gainditzeko ezar litezkeen **diskriminazio positiboko neurriak hartzea esparruan modu egokian eta duintasunez sartzeko bermatuko lukete**. Gure eskaerari erantzunez, BECeKO arduradunek sarrerako langileei mugikortasun murriztua duten pertsonari sarrera erraztu eta aurreratzeko jarraibideak emateko konpromisoa hartu zuten.



EUSKO JAURLARTZAK BAIEZKOA EMAN ZION DONOSTIAKO ARTE EDERREN ERAIKINAREN BABESERAKO ERREGIMENAREN GAINEKO GOMENDIOARI

Ancora elkarteak, Donostiako ondare kulturala babestu eta defendatzeko sortua, Arartekoarengana zuzendu zen Donostiako Arte Ederretako Jauregiak **babes erregimen egoki bat ezartzeko duen beharra** azaltzeko. Kezkatzeko arrazoi nagusia jauregiaren egoera zen Donostiako Udaleri aurri deklarazioaren espedienteari hasiera emateko eskatu ondoren. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eraikina kultur interesdun ondasun bezala izendatzeko espediente bat abiarazteko eskatu zioten. Erreklamazioa baloratu ondoren, Arartekoak ere egiteko gomendatu zion. Adierazi genuen espedientea izapidetu bitartean parte-hartze prozesu bat ezarri beharko litzatekeela, eraikinaren babesa bermatzen duen ekintza plan bat proposatzeko. Helburuak izango liriateke: babestu beharreko balio bereziko elementuak izendatzea; eraikinaren babes eta erabilera erregimena ezartzea balioespena eman ahal izateko; eta finantziario eta suntsitzea ekidingo duten lehentasunen programa bat barneratzea. Kultura Sailaren erantzuna baiezkkoa izan da.



FUTBOL ETA SASKIBALOI JOKALEKU BATZUK SORTUTAKO ZARATA ERAGOZPENAK ARINTZEKO NEURRIAK

Getxoko auzotar batek salatu zuen udalak ez zuela ezer egin bizi den eraikinaren ondoan kokatutako futbol- eta saskibaloi-kantxa batzuek sortutako eragozpenen aurrean. Azaldu zigunaren arabera, instalazio horiek zur akrilikozko plafoiez erdi itxita dauden arren, egunean eta batez ere gauean daukaten **zarata-maila gehiegizkoa** da eta erkidegoaren eguneroko bizitzan eragina dauka, bereziki atsedeen-orduetan. Baita ere esan zuen baze-kiela instalazio horiek **aisialdi alternatiba interesgarria direla udalerriko gazteentzat**. Baina erabilerak ez du gainontzeko bizilagunek eragozpenik gabeko etxebizitza batez gozatzeko duten eskubidearen kaltean egon behar. Udalean eragozpenak arintzeko neurriak hartzeko hainbat salaketa jarri dituela baieztatu zuen, baina udalak jokalariei ahotsa jaisteko bakarrik eskatu zien eta gaua heltzean jokoari amaiera emateko. Hala ere, interesdunaren arabera, zaratekin behin betiko amaitzeko lehen-dabizi kaltetutako etxebizitzetan neurketak egin beharko lirateke, lortutako zarata mailak alderatzeko eta hartu beharreko neurriak zehaztu ahal izateko. Getxoko Udalarekin hainbat kudeaketa egin ondoren, zarata gehien sortzen zuena jokalekuko futbol-ateen itxiera panelak zirela egiaztatu dutela jakinarazi zigun, eta zarata saihesten duten beste elementu xurgatzaileago batzuk jarri dituztela. Nahikoa ez bada, udalak **egunean zehar baimendutako zarataren gehiengoa errespetatzeko** beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu. Parkean gauez instalazioak erabiltzea debekatuta dagoela esaten duen informazio panel bat jarri da.

DONOSTIAKO UDALAK ESKOLA KIROLEKO PROGRAMETAN EMAKUMEEN PARTE- HARTZEA HANDITU DU

Donostiako Udala, eta zehazkiago Donostia Kirola, eskola kiroleko programetan emakumeen parte-hartzea handitzeko prozesua sustatzen ari da, Arartekoak 2013an egindako gomendioaren harira. Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalari eskatu genien Eskola Kiroleko Programaren barruan futbola praktikatzeko den espazio publikoetan, eta batez ere gizarte ikusgarritasun handiena dutenetan –Kontxako hondartzaren kasua- berdintasun irizpideen arabera gizonezkoen zein emakumezkoen lehiaketak izatea bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko. Ebazpenean adierazi genuen bezala, hala eginda bakarrik **ezaba daiteke modu eraginkor batean espazio publikoen erabilera sexuaren arabera bereizteko** joera, baita emakumeek eta neskek praktikatzeko duten kirolari ikusgarritasun, espazio eta presentzia handiagoa eman. Politika publikoen helburu diren gainontzeko eremuetan bezala, botere publikoek eskola kirolaren sustapenean ere genero ikuspegi bat gaineratu beharko lukete, eremu batzuetan genero baten eta bestearen presentziaren arteko oreka falta pertsonen arteko berdintasun eraginkorarentzat oztopo bat delako. Esparru horietako bat kirola da, eta bereziki maskulinituagoak dauden modalitateetan, futboleko gertatzen den moduan. Positiboki baloratu dugu udalaren erantzuna, baita gomendatu genuenaren gainean lan egiteko erakutsitako prestutasuna ere.





GALDAMESKO UDALAK DATU PERTSONALAK EMATEAREN GAINEKO GOMENDIO BAT ONARTU DU

Galdamesko Udalak Arartekoaren **gomendio bat** onartu du: **Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari datuak ematean, dagokion helbururako behar-beharrezkoak diren datuak bakarrik eman daitezke, eta emandako erregistroen eduki zehatzaren berri eman behar die bizilagunei.** Galdamesko Udaleko (Bizkaia) hainbat auzotarrek Arartekoari jakinarazi diote, tokiko erakunde hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzearen ondotik, udalak haien datuak partzuergo horri eman dizkiola, baita banku-helbideratzearen datuak ere. Kexa aztertu ondoren, uste dugu harpidetutakoen banku-helbideratzearen datua, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zerbitzua emateko beharrezko datua ez denez, Galdamesko Udalak ez duela eman behar, aurretik erabiltzaileen berriazko baimena ez badu. Gainera, udalak bizilagunei harpidedunen fitxategiaren erregistroaren datu pertsonalen edukia zein den jakinarazi behar die, nahi balute beren datu pertsonalen **zuzentzeko eta baliogabetzeko eskubideaz** baliatzeko.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK HAURREN BABESERAKO PROZESUETAN EGINDAKO EBAZPEN GUZTIAK EGOKI OINARRITUKO DITU

Familia bat Arartekoari zuzendu zitzaion bere alabaren babesgabetasun aitortpenarekin eta Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Politika Sailak bere zaindaritza izatearekin zuen desadostasuna adieraztera, eta guzti hau egiteko moduarekin. Beste gauza batzuen artean, gurasoek jakinarazi ziguten bere alabaren babesgabetasun egoera aitortzen zuen foru aginduak ez zituela erabaki hori oinarritzeko arrazoiak azaltzen, eta ez zietela eman, jakinarazpenarekin batera, administrazioak erabaki hori hartzeko oinarri izan zuen txosten teknikoa. Familiak txostena formalki eskatu zuen eta orduan eman zieten. Adierazi zuten, horrek hartutako neurriari judizialki aurre egitea zaildu zuen. Aldundiari gomendatu genion babesgabetasun aitortpeneko eta babesgabetasun larriko egoeran dauden adin txikikoen zaindaritza izateko neurriak hartzeko ebazpenak modu egoki eta nahikoan oinarritzeko. Gomendio horren ondorioa zen foru-arauaren testuak ez baduela era nahikoan erabakiak oinarri hartu dituen egitateak jasotzen eta horren ordez txosten batera bidaltzen badu, txosten hori ebazpena jakinarazteko egintzan bertan eman beharko litzatekeela, berariaz eskatu behar izan gabe, gurasoei judizialki babes-neurriaren aurka egiteko eskubidea bermatze aldera. Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzuna baiezkua izan da eta gomendioa umeen babesaren prozesu ezberdinen edozein momentutan egindako ebazpenetara zabaldu du.



HERNANIKO UDALAK BESTE ETXEBIZITZA BAT ESLEITU DIO UDAL ETXEBIZITZA BATEKO MAIZTER BATI, HORRETAN GABEZI LARRIAK ZEUDELA EGIAZTATU DELAKO

Pertsona batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen 2011. urtetik, Hernaniko udalerrian etxebizitza esleitu ziotenetik, etxebizitzak zituen **hezetasun arazo larriak** konpontzeko eskatzen ari zelako. Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari eta Hernaniko Udalarari laguntza eskatu genien, administrazio horiek gabeziak egiaztatzeko helburuz egindako jardunak ezagutzeko eta, hala badagokio, gabezi horiek konpontzeko. Sailak azaldu zigunez, udalarekin sinatutako kolaborazio hitzarmen bati jarraiki, Alokabide elkarte publikoak etxebizitzaren alokairuaren kudeaketan esku hartu zuen, baina gabeziak zuzentzearen eskumena udalarena zela, etxebizitzaren titularra delako. Udalak salatutako arazoa konpontzen saiatzeko egindako jardunen berri eman zigun eta udal etxebizitzaren erabiltzaileek etxebizitza duin bat izateko beharrezko neurriak hartzeko konpromisoa hartu zuen. Azken azalpen horiek jaso eta berehala kexagileak jakinarazi zigun alokatutako etxebizitzan antzemandako hezetasunek okerrera egin zutela. Kudeaketa asko burutu ondoren, udalak kexagileari **beste etxebizitza bat esleitzea eta ematea** onartu zuen.

TRAFIKOKO ZIGOR BAT BERTAN BEHERA UTZI DUTE GIDARIAREN ERRUGABETASUN PRESUNTZIOA ETA DEFENTSA ESKUBIDEA EZ ERRESPETATZEAGATIK

Gidari batek gure esku-hartzea eskatu zuen Santurtziko Udalak zigorra ezarri ziolako Udaltzaingoko agente batek haren ibilgailuaren kontra jarri zuen salaketaren ondorioz. Salaketaren arrazoia “*elbarriek bakarrik erabiltzeko eremuan aparkatzea*” izan zen. Azaldu zigunaren arabera, haren ibilgailua behar bezala aparkatuta zegoen erreserbatutako plazaren aurrean, eta plaza horretan beste ibilgailu bat zegoen aparkatuta. Horrez gain, azaldu zuen zigortzeko prozeduran aipatutako inguruabarra argudiatu zuela eta esan zuen guztia egiaztatzen zuten zenbait argazki aurkeztu zituela. Halaber, erreserbatutako plazaren eta bere ibilgailua aparkatuta zegoen tokiaren aurrean kokatuta dagoen negozio baten jabearen lekukotza biltzeko proposamena egin zuen. Gidaria kexatu zen udalak haren alegazioak salaketaren egiazkotasun-presuntzioan oinarrituta ezetsi zituela eta ez zuela aintzat hartu aurkeztu zuen argazki-froga, ezta proposatu zuen lekuko-froga egin ere. Udalak helarazi zigun informazioa behin aztertuta, uste dugu interesdunak bere defentsa oinarritzeko aurkeztu zituen **frogen gaitzespenak ez dituela** konstituzioan ezarritako **errugabetasun-presuntzioa eta defentsa eskubidea errespetatu** eta, horrenbestez, zigorra bertan behera utzi beharko litzatekeela. Udalak gure balorazioa onartu, zigorra baliogabetu eta interesdunari gauzatzeko enbargatutako kopurua itzuli zion.

ALOKABIDE ELKARTE PUBLIKOAK DEPENDENTZIA HANDIA DUEN PERTSONA BATI BABESTUTAKO ALOKAIUAREN ERRENTA GUTXITZEA ONARTU DU

Ezgaitasun fisikoa duen eta dependentzia handiko egoeran dagoen pertsona batek Arartekoaren laguntza eskatu zuen alokairu erregimenean okupatzen ari den babes ofizialeko etxebizitzaren errentaren igoera dela eta. Kexagileak ezarritako **errenta berriko beheranzko berrikuspena** eskatu zuen, igoerak oinarritzko arropa eta elikadura gastuei aurre egiteko ia diru-sarrerarik gabe uzten zuelako. Bere ezgaitasuna dela eta, hileroko gastu handia suposatzen dioten **laguntza eta tratamenduak behar ditu** (etxekeko laguntza, autonomia pertsonaleko gune batera joatea, etab.). Eusko Jaurlearitzako Gizarte Politiken Sailari laguntza eskatu genion eta kexagilearen eskaera aztertzeko proposatu genion, bere egoera pertsonala ikusita. Azkenik, **Alokabide** elkarte publikoak etxebizitzako **errenta gutxitzea erabaki** zuen.




LANBIDEK PERTSONA BATEN DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ESKUBIDEA AITORTU ETA DAGOZKION ATZERAPENAK ORDAINDU DIZKIO

Pertsona horri diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu zioten EHUUn ikasten zuenean, 2010ean, Saharako kanpamentuetara joan zelako. 2012an diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatu zituen, baina Lanbidek ukatu zizkion irteera hori zela-eta egoitza eraginkorra galdu zuela uste zuelako. Jakinarazi zigun bezala, ekainean eskatu zituen prestazioak eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen. Lanbidek eskari mota hau ebazteko duen bi hilabeteko epea pasa ondoren, behin baino gehiagotan joan zen zegokion bulegora eta ahoz azaldu zioten **eskaria ukatu ziotela erroldaren eta egoitza eraginkorraren baldintza ez betetzeagatik**. Dirudienez, oinarria zen kexagileak, espainiar herritartasuna duenak, unibertsitatean ikasten zebilela 2010ean Mendebaldeko Saharako lurraldeetara egindako bidaia, bi hilabete baino gutxiago egon zen oporrak aprobetxatuz. Horrek, Lanbideren ustez, egoitza eraginkorra galtzea suposatzen du. Atzerrira egindako bidaiak direla-eta egoitza eraginkorra galtzeari lotuta ezarritako irizpide orokorrenekin dugun desadostasuna adierazi genion. Lanbidek hausnartu du eta pertsona honek prestazioak jasotzeko duen eskubidea aitortu du, dagozkion atzerapenak ere ordainduz.

LANBIDEK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA JASOTZEN DUTEN PERTSONEK EGIN DITZAKETEN GASTUEN INGURUKO IRIZPIDE OBJEKTIBO BATZUK EZARTZEA ONARTU DU

2013ko otsailean ofiziozko jardun bati hasiera eman genion diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten edo eskatu zuten pertsonen hainbat kexa jaso genituelako. Pertsona hauei prestazioa ukatu, eten edo iraungi zieten alferrikako edo gehiegizko xahupenengatik. Ebazpenen arabera, gastu hauek diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu zitzaizkien helburuetarako ez erabiltzea suposatuko lukete. Gure ustez, arazoa **gastuekiko muga hauen indeterminazioa** zen. Gainera, informazio falta zegoela uste dugu, kaltetutakoek ez zekitelako euren jokabideak prestazioaren eskubidea galtzea bezalako ondorio larriak izan zitzakeenik. Arartekoaren gomendioari jarraiki, Lanbidek orain uste du, orokorrean, 200€ baino gutxiagoko gastuak ez direla kontuan hartuko diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionean. Beraz, **irizpide objektibo** batzuk zehaztu ditu diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek egin ditzaketen gastuen inguruan. Informazio hau interesdunei helaraziko zaie, diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa jasotako dirua erabiltzerakoan kontuan izateko.



EUSKADIKO HAIZE PARKEAK: ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GAINEKO GIZARTE ETA ERAKUNDEEN ADOSTASUNAREN BIDEAN

Arartekoak haize parke bat baimentzeko eta haize energiaren inguruko gizarte adostasunaren bultzadaren inguruan jarraitutako administrazio izapidearen gaineko espedientea amaitu du. Eusko Jaurlaritzak Euskadin haize parke batzuk baimentzeko egindako jardunen aurrean, pertsona talde batek egindako alegazioei erantzuna ematea eta interesdunei jakinaraztea erreklamatu zuten. Modu osagarrian, kexagileek gure autonomia erkidegoan potentzia baxuagoko haize parkeen ugaritzeagatik duten kezka azaldu zuten, EAeko **Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialaren** eremuan aurreikusi gabeak. Parke horiek eta energia iturri berriztagarri horren inguruko beste kontu batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen arloko plangintza berrikusteko beharra ekarri zuten.

Ebazpenak haize-parkea baimentzeko espedientean aurkeztutako alegazioei erantzuna emateko jarraitutako izapidea aztertu du, baita administrazioetik erantzun arrazoitu bat jasotzeko eskubidea ere. Adierazten duenez, herri-administrazioek **aurkeztutako alegazioei erantzun egokia** eman behar diete informazio publikoko izapideetan, ez egiteak alegatzen dutenentzat babesgabetasuna suposatu dezakeelako. Halaber, haize-energiaren lurralde plangintza berrikusteko aukerak eta energia berriztagarrien sustapenak behar duen gizartearen eta erakundeen adostasuna aipatu ditu. Ebazpena Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoko eta Lehiakortasun Sailera zuzentzen da, tartean dauden gainerako administrazioekin batera, Euskadin energia estrategiaren plangintza bultzatzen jarraitu behar dute, energia berriztagarriak oro har eta bereziki haize-energia sustatzeko neurri pizgarri eraginkorrak hartuz, **Euskadiko Energia Estrategia 2020** izenekoa adierazitako helburuak betetzea ahalbidetze aldera.

Energiaren plangintza egiteko lan horren baitan, euskal herri-administrazioek haize-energiari dagokionez gizartearen, erakundeen eta herritarren adostasuna sustatzen jarraitu behar dute, betiere ingurumenaren arloko irizpideekin bat eginez eta 2020. urterako energia berriztagarrien kuota handitzeko helburu estrategikoen testuinguruaren barruan.

LANBIDEK ESKUBIDEEN EBAZPEN MUGATZAILEAK MOTIBATZEKO BEHARRA

Lanbideren diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketarekin lotutako kexen arrazoi ezberdinen artean, ohikoena da Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politikaren Sailaren barneko erakunde autonomo honen **ebazpenen motibazioan akatsak egotearekin** lotutakoa.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta izaera ekonomikoa duen prestazioa da, eta kopurua lanbide arteko soldata kontuan hartuz kalkulatzen da. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsona guztiek dute hura jasotzeko eskubidea. Gaur egun, 130.000 pertsona inguru dira onuradun, laguntza jasotzen duena bizikidetza unitatea baita, askotan familia osatzen duten hainbat pertsonen osatzen dutena. Hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta Euskadiko herritarren ehuneko handi baten salbazio-taula da. Hori dela eta, Arartekoak izaera orokorreko **gomendio** bat idatzi du, **Lanbideri diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea ukatzen duten ebazpenek oinarri sendoa izan dezaten eskatzeko**.

Eskubideak murrizten dituzten ebazpenak oinarritzeko lege betebehar bat existitzen da, kaltetuei bidaltzen zaizkien idatziak erabaki hori hartzeko gertaeren eta kasu zehatzari ezarri ahal zaizkion arauen erreferentzia labur bat egitea dakarrena.

Lanbideren ebazpenetan, orokorrean, eskubidearen eteteak, iraungitzeak edo ukatzeak jakinarazteko idatziek ez dituzte arrazoi zehatzak aipatzen, erreferentzia generikoak besterik ez, eta horren ondorioz pertsona hauek ez dakite zergatik izan den kaltetua euren prestazio eskubidea. Informazio falta honek pertsona guztiek alegazioak aurkezteko duten eskubidea kaltetzen du, norbaitek administrazioaren erabaki baten zergatia ezagutzen ez badu, nekez egingo diolako aurre.

Honek **babesgabetasun egoera argiak** eragiten ditu, bai alegazioak aurkezteko ezintasunagatik, kaltetuak jasotzen duen idatzian funtsezko arrazoiak ez direlako azaltzen, baita arrazoi hauek jakin ondoren (normalean Arartekoaren esku-hartzearen ondorioz), batzuetan ez daudelako araudian jasota.

Horregatik, oso garrantzitsua da Lanbideren arrazoiak oinarritzen duten gertaeren azalpen labur batekin batera, hartutako neurria oinarritzeko lege agindua edo aginduak azaltzea, segurtasun juridikoaren eta arbitrakeriaren eragozpenaren printzipioak osotasunean errespetatzeko.





HIRI-LURREN BALIOA IGOTZEA ERREGULATZEN DUTEN FORU ARAUAK ALDATZEKO BEHARRA, ZERGA-OINARRIAREN ZEHAZTAPENEAN IKUSITAKO DISFUNTZIOAREN ETA HORREK KONTRIBUZIO AHALMENAREN PRINTZIOPIOAN DUEN KALTEAREN AURREAN

Hiri-lurren balioaren gaineko zergaren egungo konfigurazioak **kontribuzio-ahalmenaren printzipioari eragin diezaioketen disfuntzioak** agerian jarri ditu, bereziki, krisi ekonomikoaren ondorioz etxebizitzaren prezioak behera jo dutenean, ez baita kontuan hartu zerga ondorioetarako ondasun higiezinaren gaineko jabetza eskubidearen eskualdatzeak egiazki badaudela eta iruzurrezkoak ez direla (prezioa eskuratzeko prezioa baino txikiagoa). Horrez gain, egungo idazketak asko zailtzen du zergaren likidazioa, eskualdatzeak babes publikoko etxebizitzaren gaineko azaleraren benetako eskubide bati eragiten dionean.

Arintzeko helburuz, Arartekoak hiru foru aldundiei gomendio orokor honen bidez proposatu zien hiri-lurren balioen gaineko **zergaren** igoera **erregulatzen duten foru arauen aldatetari** atzerapenik gabe ekitea, eskubide errealen transmisioari zerga-ordainketa ezarri baino lehen inolako ondasun irabazirik egon ez dela egiaztatu daitekeen kasuetan, zerga epealdiaren barruan.

Gainera, **zerga honen aldatetari ekitea** gomendatu zien, babestutako etxebizitza baten azalera eskubidearen transmisioa modu erraz eta argi batean likidatu ahal izateko lurralde historikoen udalerrri guztietan.



EAEⁿ ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN BURU-OSASUNAREN ARRETA SOZIOSANTARIOAREN EGOERA

Espetxeetako biztanleriari buruzko azterlan askok agerian utzi dute preso bizi diren pertsonen buruko osasuna nabarmenki narriatzen dela eta buruko gaitzak dituzten pertsonen espexeratzea eta askatasunik gabe dauden bitartean gaixotasunari egiten zaion arretaren gabeziak argitaru direla.

Ditugun ikerketen arabera, **ia Espainiako preso en erdiek (%40-45) buruko gaitzen bat dauka**. Ehuneko hau **Euskadiko** espexeeetan dauden pertsoneri aplikatzen badiegu, **600 pertsona inguruk** buruko gaitzen bat duela ondorioztatu dezakegu, horietatik 100ek izaera larriko gaitzak pairatuko litzuketelarik. Azpimarratu beharra daukagu **nortasun-nahasmenduaren nagusitasuna**: Aztertutako laginaren %80 inguruk gutxienez nortasun-nahasmendu bat zeukan. Gazte Justiziaren Zerbitzuaren erabiltzaile adingabeen artean ere patologia psikiatrikoen nagusitasun altua ematen da.

Larritasun gutxiagoko gaitzak pairatzen dituzten pertsoneri arreta emateko **erdibideko errekurtsuak izateko beharra** nabaritu da, presondegiaren beraren barruan arreta espezializatua eta arreta sozio-sanitarioko kanpo zerbitzuak izatea.

Presondegietak eskumenak ez dira Euskadira eskualdatuak izan oraindik. Baina presondegietak osasun funtzioak bai. Eskualdatze honen filosofia da presondegietak osasun zerbitzuak komunitatekoen barruan sartzea, modu horretan preso dauden pertsonen eskual osasun sistemak eskaintzen dituen kalitate ereduez gozatzeko –muga bakarrak zigorrek sorturikoak bakarrik izanda-. Gure ikerketak eskualdaketa eman zenetik eman diren **zalantzarik gabeko aurrerapenak** erakusten ditu. Baina oraindik ematen diren **ohiturak gainditzeko beharra** ere azaltzen du, gure espexeeetako praktikan establezimenduaren erregimen eta segurtasun exijentziek jasotzen duten preso en tratamenduaren gaineko lehentasunaren ondorio.

Kasu batzuetan, errekurtsu zehatzen faltak, daudenen ezagutza faltak eta espexetik datozen pertsonak hartzeko mesfidantzak, **uztea, eskean ibiltzea, berrerortzea eta berriz ere espexeratzea** sortzen du.

Arreta berezia behar duen kolektibo bat **auzi penalak dituzten emakumeek** osatzen dutena da. Hauetan larritasun handiagoko psikopatologiak hauteman dira eta zailtasun handiagok dituzte komunitate errekurtsuak lortzeko, ondorio larriagoak sortuz maila pertsonalean eta familiarrean, normalean seme-alabak dituztelako beren zaintzapean.

Arartekoaren ustez desiragarria litzateke Eusko Jaurlaritzak espexeeetako eskumenak bere gain hartzea, modu horretan estatutuaren agindua betez. Eta etorkizuneko marko horretan berezko espexe eredu baten diseinua eta kudeaketa sustatzea, preso en buru-osasunarekin lotutako esku-hartze egokia eta eraginkorra eramango duena, helburu bikoitzarekin: preso en osasun eskubidea egoki bermatzea eta zigorra betetzea gizarteratze helburuarekin lotzea.

EUSKADIKO FAMILIAK LAGUNTZEKO POLITIKAK: ANALISIA ETA PROPOSAMENAK

Familia-ereduak eraldatzen ari den gizarte-egitura batean murgilduta daudenez, haiek ere eboluzionatzen eta aldatzen ari dira. Nukleoan eta seme-alabetan oinarritutako gizarte-egitura —hori baita eredu tradizionalena— oraindik ere nagusia bada ere (%38, 787.000 familia baino zertxobait gehiago Euskadin), pixkanaka baina etengabe garrantzia galtzen ari da, beste eredu batzuen mesedetarako, adibidez seme-alabarik ez daukan bikoteak (%20,9) edo seme-alabarik ez duten eta bakarrik bizi diren pertsonak (%21,6).

Familia-eredu berrien sorrera eta sendotze horretan, familia-mota berriak (familia homoparentalak, guraso bakarrekoak edo ezkontzaz araututa ez daudenak) gero eta indar handiagoaz sortzen ari dira. Horrez gain, familia guztiak ukitzen dituzten **barne-harreman mota berriak** ere eratzen ari dira, eta, horrela, kideen autonomia hazten ari da eta barne-negoiazioa handiagoa da. Hala ere, familia ereduaren eboluzioaren analisisan gakoa izan daitekeen elementua **seme-alabak dituzten ereduaren ehunekoaren jaitsiera** da. Izan ere, EAEen **gehiago dira 65 urtetik gorakoak 20 urtetik beherakoak baino**.

Batez ere, bi **dira egoera soziodemografiko hau azaltzeko faktoreak**.

- **EAEa europar eskualdeen artean gazteak berandu emantzipatzen direnen artean dago.**
- **Familia bizitza, lanekoa eta pertsonala bateratzeko zailtasun handia.**

Hautemandako erronkek honako gaiak azpimarratzen dituzte:

- **Familiei laguntzeko politiken buruzagitza eta zeharkakotasuna bultzatzea.**

Honek, dauden administrazio egiturak gizarte eskaerei egokitzea eta familien babeserako euskal araudia garrantzia dakar.



• Inbertsio publiko handiagoa, seme-alabak dituzten familien gastuak konpentsatzeko

- Euskadirentzat funtsezko erronka da seme-alabekiko familiei babes ekonomikoa emateko egin beharreko inbertsio publikoa. Euskadik orain arte unibertsala ez den eta batez ere dedukzioduna den kostuen konpentsazio sistema bat sortu du, hau da, PFEZren dedukzioen bidez sostengatutakoa. Gure inguruko herrialdeei pixkanaka berdintzeak ekonomia publikoaren esfortzu handiagoa eskatzen du, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntza zuzenak orokortzeko bidean.

• Familia bizitza, lanekoa eta pertsonalaren kontziliazio neurrien sakontzea, garapena eta hedapena.

- Familiek beraien eguneroko bizitzan familia eta lana uztartzeko dituzten zailtasun handiek zeresan handia dute biztanleria zahartzean eta egungo ongizate sistema, gaur egun ulertzen dugun bezala, etorkizunean mantentzean ere.

• Egoera zaurgarrian dauden familiei lagundu:

- Oraindik babesgabetasun handiko egoeretan edo gehitutako zailtasun objektiboak dituzten familiei eman beharreko laguntza neurrietan sakontzea beharrezkoa da.



ZIGOR KODEA ALDATZEKO PROIEKTUAN BURUKO OSASUNAREN TRATAMENDUARI BURUZKO AZTERLANA

Azterlan horren bitartez, Ararteko erakundeak hausnarketa partekatu du buruko osasuna, magistratura eta doktrina zientifikoaren alor profesionalekin batera, izan ere, azken horiek mahai gainean jarri dute proiektuak kontrako eraginak, berriz ere iraingarriak, izan ditzakeela buruko gaixotasun edo nahasmenduren bat pairatzen duten pertsonentzat. Euren iritziz, proiektu hori onetsiz gero, atzerapausoak emango lirateke konstituzioaren bidez aitortu diren berme eta eskubideen babesaren eremuan. Berme horiek legearen segidako aldaketetan islatu dira (aldaketok funtsezko prozesu-izaera dute), bai zigor-eremuan, bai eremu zibilean.

Zigor Kodea aldatzeko proiektuan buruko osasunari eman zaion tratamenduak hauxe aldatu du: “egitatearen zuzenbide penal” “egilearen zuzenbide penal” bihurtu du. Proiektu horretan buruko gaixotasuna arriskugarritasunarekin erlazionatu da eta horrek, iraingarria izateaz gain, ez dauka inolako oinarri enpirikorik. Arriskugarritasuna ez da kontzeptu kliniko edo psikopatologiko bat. Ez dago oinarri zientifikorik buruko osasuneko profesionalek pertsona baten ustezko arriskugarritasuna ebaluatu dezaten.

Hala, Arartekoaren ustez, Zigor Kodearen proiektuak jaso dituen zenbait xedapenek atzerakada argia eragingo dute buruko gaixotasun bat pairatzen duten eta garrantzi penalak duten ekintzak burutzen dituzten pertsonen eskubideen aitortpen eta bermeari dagokienez:

- Askatasuna kentzeko zigorrak eta segurtasun neurriak barne hartzen dituzten ezarpenen kasuan, bikario-sistemaren haustura.
- Barnealdi segurtasun-neurria segidan luzatzeko aukera, abstraktuan aplikagarria den zigorraren iraupenetik harago.
- Barnealdi-neurriaren gauzatzearen etetea baliogabetzen denean, zainpeko askatasunaren neurria modu automatikoan ezartzea eta etetea gertatzen den unean ezagutzen ez diren iraganeko inguruabarrengatik baliogabetzea burutzeko aukera.

Bestalde, azterlanean azpimarratu da herri-administrazioek esku-hartze soziosanitarioari lotutako sistema eraginkorra ezartzeko eginbeharra eta ardura daukatela, osasun arloko araudian xedatu diren buruko osasuneko arreta zerbitzuen sarearekin bat datorrena.





GAZTE AISIALDIKO LOKALAK

Azken urteetan, aisialdi fenomeno alternatibo bat hedatu da Euskadin, batez ere gazteen artean, bizitegi-erakinetan dauden merkataritza lokalak erabilera sozialerako eta jolas erabilerarako egokitzean datzana. Gazteriaren Euskal Behatokiak egindako *“EAEko lonjak eta gazte lokalak”* txostenaren arabera, Euskadin 62.000 dira lonja edota gazte lokal bat duten gazteak. Errealitate hau **gazte taldeen arteko sozializazio eta elkarrekin egoteko espazio alternatiboak** izateko beharrak sortu du, ohituraz gazteek beraien denbora espazio eta lokal publikoetan partekatu izan dutelarik.

Fenomeno hau **positiboa eta baketsua** izan da kasu gehienetan. Hala ere, batzuetan, **jabekideen komunitatearen barruan arazoak** sortu dituzte, gaez erabiltzen direlako, zaratagatik edo erabilera komuneko espazioen erabilera dela eta. Kezka sortzen duen beste gai bat da segurtasun eta osasungarritasun baldintza egokien falta, jolas erabilera honetarako prestakuntza zehatza ez duten lokaletako batzuetan.

Udal esku-hartze proposamenerik **lokalen bizigarritasun eta segurtasun baldintzen hobekuntza** suposatuta dute eta eraikinaren bizilagunekin elkarguneak izateko bidea eman dute. Hala ere, lokal hauen kopurua handitzea eta administrazio kontrol erregimen argi baten falta **ingurugiro gatazka gehiago** sortzen ari dira, batez ere gaez sortzen den iskanbilagatik. Era berean, **istilu** garrantzitsuak sortu dira lokalaren baten segurtasun baldintza kaxkarrengatik.

Gatazken handitzearen isla da **Arartekoaren aurrean egindako erreklamazio kopuru handiagoa**. Badakigu

fenomeno honek gizarte eta udal esku-hartze eremu ezberdinek egindako analisia beharko lukeela. Balorazio horretan koordinatu beharreko herri-politika ezberdinek dute eragina.

Laguntzeko asmoz, **gazte lokalen gaineko gogoeta egiteko oinarrien dokumentu bat aurkeztu genuen**, Arartekoaren azken urteetako jardunetan oinarritua, Eudelekin batera antolatutako lan jardunaldian **Euskadiko hainbat udalekin egindako lankidetzaren** fruitu ere dena. Helburua **hainbat proposamen eta gomendio ezartzea da**, herri-administrazioek homogeneoki jarduteko premisa bikoitz baten barruan: ingurumenean in-pakturen bat eragin dezaketen jarduerak arautzen dituen arau-esparrua betetzea; eta, gazteen lokal egokien, ziu-rreren eta beren gizarte-ingurunean hazten ari den fenomeno horretan parte hartzen duten gainerako eragileekin integratutako alde egitea.

Ondorio gisa hainbat neurri proposatu ditugu:

- Gazte lokalen udal-ikuskaritza plana
- Esku-hartze eta ingurugiro kontrolerako programa bat barneratzea
- Exijitutako neurri zuzentzaileak aurrerago betetzen diren kontrolatzea
- Udal-arautegi bidezko udal-erregulazioa
- Eudelek udal jardun egokiak hedatzea



ESKUBIDEEN UHARTEA

ESTEKAK

JOKOAK

Ararteko

www.ararteko.eus/eskubideenuhartera

KREDITUAK

HAUR ETA NERABEEN BULEGOA

Haur eta Nerabeen Bulegoa haurrei eta nerabeei dagozkien eta haiengan eragina duten kontuez arduratzen da. 2014an bideratutako **espedienteak** aztertzen baditugu, baldintza hori **329 kasutan** betetzen dela konturatzen gara, eta espediente horiek haurren eta nerabeen bizitzako hainbat arlori (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etab.) lotuta daudela ikusten dugu. Gainera, kontuan hartu behar ditugu **beste 152 espediente**, Euskadin dagoen diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin zerikusia dutenak. Gure ustez, kasu horietan adingabeak tartean sartuta daudenez, guztiak **baliabide ekonomikoaren urritasuneko** egoeran daude.

Euskadiko haurren ehuneko handia pobrezia pairatzeko arriskuan edo benetako pobrezian egotea lehen mailako arazoa da oraindik ere. Azken bi urteotan, **haurren pobrezia** jaitsi beharrean, **igo egin da**, baita gainerako populazioaren pobrezia baina proportzio handiagoan igo ere. Gainera, eragin askoz ere handiagoa du haur eta nerabe atzerritarrengan. Bestalde, benetako pobrezia eta gabezia larrien arteko loturak duen eraginik nabarmenena elikadura-arazo larriak agertzean ikusten da. Berritoki esan behar dugu haurren artean **pobrezia saihestea eta pobrezia hedapena gelditzea lehen tasun politikoaren kontua** dela. Estrategia bat behar dugu, baita politika konpentsatzaileak eta prebentzioko jarduerak ere. Beharrezkoa da esku hartzea, diruaren zein zerbitzuen aldetik.

Hezkuntzaren arloan, aurreko urteetako kexekin konparatuta, ez dugu ikusi nobedade handirik: lekurik ez dagoenean aplikatzen diren onarpenerako irizpideak hobetzea; eskabidean aipatutako lehenespeneak kontuan hartzea; ikastetxeko komunitatearen ordezkari guztiek hezkuntza plangintzan parte hartzea; lanbide-heziketaren esparruan irakaskuntza-eskaintza zabaltzea; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei ematen zaien arreta orain arte lortutako mailan mantentzea; beka edo beste ikasteko diru-laguntza baten eskatzen denean, erabakia azkarrago hartzea. Era berean, azpimarratu nahi ditugu **aniztasun afektibo-sexualarekin**, LGTB haurren eskubideen babesarekin, eta ikastetxeetan homofobia eta transfobiaren aurkako borrokarekin lotutako hezkuntza-proposamenak. Proposamen horiek **Rainbow Has proiektu europarraren** esparruan garatzen ari dira.

Familientzako laguntza publikoari dagokionez, gogoeta bera egin dugu: gure ustez, familiei laguntza ematea, estrategia publikoa bezala, ezinbestekoa da gizarte-estatuari eusteko, eta horrek esan nahi du, krisiaren testuinguruan inoiz baino gehiago, familia-politikak **inbertsio publikorik onenak** direla gizarte-kohesioa bermatzeko eta garai hauek horrenbeste mehatxatzen dituzten pobrezia eta gizarte-desegituraketa saihesteko. Euskadin bizi diren familiak babesteak familia-ereduen aniztasunaren alde lan egitea eskatzen du, hau da, lan egin behar da eredu bat baino gehiago dagoela onartu eta aintzat har dadin. Gainera, ezinbestekoa da baliabide edo babes-neurri bereziak behar dituzten familien kasuak identifikatzea eta inbertsio publikoa indartzea, bai familian bertan, baita lana eta bizitza pertsonala uztartzeko programa, laguntza eta zerbitzuetan ere.

Babesik gabeko egoeran dauden haurrentzako **gizarte-zerbitzuekin** zerikusia duten kexa gehienak, lehen bezala, haur-zerbitzuek egindako balorazioarekin desadostasuna dela eta aurkeztu dira. Horrelako balorazio batek seme-alabak babesik gabe geratzeko arriskua, guraso-ahala etetea eta tutoretza erakunde foralak bere gain hartzea ekartzen ditu. Adingabe horiek zaintzeko, foru-aldundiek badaukate egoitza-harrerako baliabideen sare bat. Sarea, gure ustez, dinamikoa da eta errealitateak eskatzen duenari erantzuteko prest dago, nahiz eta gabetasun batzuk oraindik konpondu gabe egon. **Familia-harreraren** aldeko apustu irmoa egitea oraindik ere falta da, azken urteotan aurrerapausoak egin diren arren.


Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopurua nabarmen jaitsi bada ere, oraindik ez dago adingabe haiei harrera egiteko jardun-protokolo komunik. Emantzipazio-garaian ere, kalteberatasun larriko egoera denez, bereziki zaindu behar dira adingabe horiek. Gizarteratzearen arloko praktika batzuk ez datoz bat Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileei aitortzen zaizkien eskubideekin.

Aisialdi eta jolas jardueri dagokionez, prestatu dugun *gogoetarako oinarrien dokumentuak* hainbat proposamen eta gomendio jasotzen ditu, administrazio publikoek bateratsu jardun dezaten bi premisaren baitan: ingurumenean eragina izan dezaketen jarduerak arautzeko eremua betetzea, eta gazteen lokal egokiak, seguruak eta gizarteratuak erraztea.

Osasunaren arloan eta **osasun mentaleko** arazoak dituzten haurren arretari dagokionez, berritoki ere aipatu nahi dugu errehabilitaziorako tarteko egiturak gehitzean aurrera egiteko eta pixkanaka erkidegoko arreta-eredura gerturatzeko beharra.

Aurrerapen batzuk egin dira **kronikotasunaren estrategiako** hainbat ildotan, hain zuzen ere, jaioberrien bahe-tzearekin eta prebalentzia baxuko gaixotasunekin zerikusia duen horretan. Baina oraindik ere badaude hainbat kontu esku hartzeko; horregatik, 2015ean horien jarraipena egingo dugu, baita, oro har, arreta soziosanitarioaren jarraipena ere.

Azkenik, **Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 25. urteurrenarekin** lotutako ospakizunak bukatuta, herri administrazioei eta, oro har, gizarteari eskatu nahi diegu ospakizun horiek haurren eskubideetara bideratu duten arreta izaten jarrai dezatela. Oraindik ere beharrezkoa baita haurren eta nerabeen eskubideei buruzko kontzientzia zabaltzea, bai eskubideen hedapenari dagokionean, bai zenbait jardueren gaineko kontzientziatzeari dagokionean (zigor fisikoa, tratu txarrak, sexu-erasoak...). Bestalde, **haurraren interes gorenak** eskatzen duenez, erabaki judicial eta administratibo guztien kasuetan aztertu behar da erabakiak zer ondorio (positibo edo negatibo) izan ditzakeen haur interesdunengan.




HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOAREN 25. URTEURRENA

2014ko azaroaren 20an 25 urte pasa ziren Nazio Batuen Biltzar Orokorrek **Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa** –historian zehar, nazioarteko hitzarmenik berretsiena– onartu eta sinatu zuenetik. Testu horrek haur guztien oinarriko eskubideak aldarrikatzen ditu, eta historian zehar lehenengoa den paradigma-aldaketa bat dakar berekin: haurrak, 18 urtetik beherako neska-mutilak, babes- beharreko pertsonatzat jotzetik eskubideen subjektu aktibotzat jotzera igaro dira, eta beraien interes gorenak lehenetasuna du beste bidezko interes batzuen aurretik.

Save the Children, UNICEF Euskal Herriko Batzordea eta Ararteko elkartu ziren egun horretan, euskal gizarteari gai batzuk helarazteko:

- **Poztasuna** 25 urteetan lortutako **aurrerapenengatik**; izan ere, gure herrialdean hobekuntza garrantzitsuak izan dira alderdi hauetan: bizi-baldintza duinak lortzea, hezkuntza eta osasun sistema unibertsalak sendotzea, haurrak babesteko sistema lantzea.
- Aldarrikatutako **eskubide horiek munduko neska-mutil guztienak** dira, salbuespenik gabe. Gaur egun ume asko daude lehen baino atzerago gelditu direnak: lehenengo errokei arazo berriak gehitu zaizkie, eta arazo horiek eskubideak ez ezik, garapenaren onurak ere kentzen dizkiete.
- Hitzarmenak bereziki aipatzen ditu haur eta nerabe ahulenak, izan ere, haien alde eta haiekin lan egitea **eskubide-kontua da, justizia-kontua**, eta ez karitatearena.
- Ukaezina da eskubideak bermatzearen arloan atzera egiteko arriskua; alde batetik **desberdintasuna desagerrarazi**, eta bestaldetik pobrezia eta bazterketa belaunaldiz belaunaldi transmititu daitezen galarazi behar da, eta hori ere eskubide-kontua da.
- Gure agintariei dagokie adostasunak lortzea, eta gero, horiek, laguntza ekonomikoa ekarriko duten **politika-lehentasunak** bihurtzea. Uste osoarekin, justizia egin dadin.
- Lan horretan aurrera egiteko, ordea, gobernuak ez ezik, **gizarte osoak** ere parte hartu behar du: eskubideei dagokienez, aurrera egin behar da familietan, eskoletan, erkidegoan...





HAURRAREN INTERES GORENA SISTEMA JUDIZIALEAN

Ararteko eta Save the Children erakundeek eta UNICEF Euskal Herriko Batzordeak Bilbon antolatu zuten jardunaldian parte hartu zuten: Jorge Cardona, Haurren Eskubideen Batzordeko kidea eta Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea; Pepa Horno, Espirales aholkularitza-etxekoa; eta Jaime Tapia, Arabako Probintzia Auzitegiko magistratua.

Ekimen horretan zera proposatu zen: auzibide baten edo sistema judizialaren barruan hartutako erabakien eragina jasan behar duten haurren eta nerabeen eskubideak airtortzea eta bermatzea hobetzeko urratsen inguruan **hausnarketa eta eztabaida sustatzea**.

2013an Haurren Eskubideen Batzordeak "Adingabearen interes gorena" gaiaren inguruan adierazi zituen orientabideen argitan, **sistema judizialak** zeregin horretan dituen hutsuneei edo **ahuleziei** heldu zitzairen eta hainbat erreferentzia eta **praktika onak** aurkeztu ziren, hobetzeko aukeren argigarri gisa.

BILBOKO ADIERAZPENA

Neska-mutil talde batek, Euskadiko haurrak eta nerabeak ordezkatzuz, Bilbon antolatu zen bilera batean parte hartu zuen. Parte-hartzaileek dagozkien eskubideak zer diren eta zer esan nahi duten aztertu ondoren, euren ikuspuntua tankeratu zuten euskal gizarteari zuzendutako dokumentuan: **Bilboko Adierazpenean**.

Dokumentu horretan esaten dutenez, beharrezkoa da haztean aurkitzen diren **trabak** eta beldurrak **gainditzeko** laguntzea eta gizartean hobeto bizitzen lagunduko dieten balioak helaraztea.

Beraiengan eragingo duten gauzak erabakitzen diren esparru guztietan, **entzunak izateko duten eskubidea** aldarrikatzen dute, halaber, haien iritzia eman eta ideiak aintzat hartzea nahi dute.

Errealitateaz ohartzen dira; jakin badakite dirua, sexua, jatorria, sexu-joera, erlijioa, adina eta abar direla medio, desberdintasunak eta bereizkeriak egoten direla, eta horregatik eskatzen dituzte berdintasunean hazi ahal izateko baliabide nahikoak, eta aniztasuna ulertzen eta errespetatzen erakutsiko dien hezkuntza bat.

Hezkuntzaz, etxebizitzaz, osasunaz eta ingurumenaz hitz egiten dute, **berdintasunean hazi ahal izateko** oinarritzko baliabideak baitira. Teknologia berriak eta gizarte-sareak erabiltzean, haiek erabaki nahi dute nork eta nola eskuratuko dituen haien datuak.



7.1 ARGITALPENAK

- **Eusko Legebiltzarrentzako Txostena**, Ararteko erakundearen iazko jarduera jasotzen duena.



- **EAEn preso dauden pertsonen buruko osasunaren arreta soziosanitarioaren egoera.** Zenbait ikerketaren arabera, Espainiako presoan ia erdiek nahaste mentalen bat daukate, eta **nortasun-nahasduren prebalentzia** handia dago. Gazte Justiziako Zerbitzuak erabiltzen dituzten adingabeen artean, halaber, patologia psikiatrikoen prebalentzia altua dago. Txosten honetan egiaztatzen da **bitarteko baliabideen premia** dagoela. Izan ere, pairamen ez hain larriak dituzten pertsonen arreta emateko tarteko baliabideak falta dira, zehazki, espetxe barruko arreta espezializatuari eta arreta soziosanitarioko kanpo-zerbitzuei dagokienez.



- **Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak.**

Familia-ereduak eraldatzen ari den gizarte-egitura batean murgilduta daudenez, haiek ere eboluzionatzen eta aldatzen ari dira. Ikerketa honetan, **familia-eredu berriak** (familia homoparentalak, guraso bakarrekoak edo ezkontzaz araututa ez daudenak), baita familia guztiak ukitzen dituzten **barne-harreman mota berriak** ere aztertu ditugu. Hala ere, familia-ereduaren bilakaera aztertzean, **seme-alabak dituzten ereduak** **ehunekoak behera egitea** da, beharbada, osagairik funtsezkoena. Izan ere, EAEn, 65 urtetik gorako pertsona gehiago daude, 20 urtetik beherako gazte baino.

Lankidetzeta-hitzarmena hizkuntza-eskubideen gainean

Iñigo Lamarca arartekoak eta Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, erakunde bien arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten, herritarrek **hizkuntzagatiko diskriminazioetatik** babesteko, eta gure araudiak aitortzen dituen hizkuntza eskubideen babesa sustatzeko. Koordinazioa, gardentasuna, eraginkortasuna, elkarri informazioa ematea eta erakundeen arteko leialtasuna dira harreman hori gidatzen duten printzipioak, bakoitzaren kompetenziak errespetatu behar direla ahaztu gabe.



Arartekoak kudeaketa aurreratuarekin duen konpromisoagatik diploma jaso du

Arartekoak **2014ko Bikaintasunarekin eta Kudeaketa Aurreratuarekin Konpromisoa** dela eta diploma jaso du Euskaliten eskutik. Sari hau bikaintasuneranzko bidean aurrera egiteko konpromisoa hartu duten erakundeei ematen zaie. Duela 5 urtetik hona, Arartekoak 3 gogoeta estrategiko garatu ditu antolaketaren inguruan; gainera, plan estrategiko bat eta zerbitzuen karta bat ere baditu.



7.2 JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

Arartekoaren 25. Urteurrena

1989ko martxoaren 8an, Ararteko erakundeak bere ibilbidea hasi zuen. 25 urte geroago, jada finkatuta, erakunde honek berretsi egin du bere konpromisoa pertsonekin, euskal herritarrekin, gizarte-erakundeekin, legebiltzar-talde guztiekin eta administrazio zein erakunde publiko guztiekin, independentziaz, eraginkortasunez eta zorrotz lanean jarraitzeko, giza-eskubideen alde eta inklusioa ahalbidetzen duen gizarte baten alde. Gizarte hori, gainera, justizia izango du oinarri eta indarkeria, bereizkeria, desberdintasun eta bazterkeriatik libre egongo da.

Arartekoaren 25. urteurrena urtean zehar antolatutako ekitaldien bidez ospatu zen. Ekainean, ekitaldi instituzional bat egin zen Eusko Legebiltzarrean, eta horretan parte hartu zuten, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakariak, Bakartxo Tejería Eusko Legebiltzarreko presidentea, ararteko ohiek, Espainiako herriaren defendatzaileak eta autonomia erkidegoetako herri-defendatzaileak, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailburuk, legebiltzarkide batzuek, Euskal Herriko Justizia Auzitegiko presidentea eta zenbait elkartetako ordezkariak.

Bere mintzaldian, arartekoak aipatu zuen 25 urteotan egindako ibilbidea: giza-eskubideak sortzeko bultzada eman zuten kultura eta balioak sustatzeko eta sendotzeko lana, hain zuzen. Azpimarratu zuen **gizarte-erakundeen lana** oso garrantzitsua dela, izan ere, milaka emakume eta gizon *“gizarte-boluntariora lan bikaina egiten ari dira gizareratzeko, justizia eta ekitate sozialaren alde, giza-eskubideen alde eta pertsonen arteko elkartasunaren eta senidetasunaren balio etikoaren alde”*. Azpimarratu zuen 25 urteotan egindako ibilbidea: giza-eskubideak sortzeko bultzada eman zuten kultura eta balioak sustatzeko eta sendotzeko lana, hain zuzen.

Jardunaldia hasi ondoren, Victoria Campsek, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Filosofia Moral eta Politiko arloko katedradun emerituak, **“Demokrazia**

eta gizalegezko balioak” izenburuko hitzaldia eman zuen. Balio zibikoak zer diren eta zergatik diren beharrezkoak azaldu zuen Campsek.



Geroago egin zen mahai-inguruan, **Arartekoaren gaineko ikuspegi ezberdinak** azaldu ziren. Parte-hartzaileak: Mikel Mancisidor (Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen arloko Nazio Batuen Batzordeko kidea eta UNESCO Etxearen zuzendaria); Alberto López Basaguren (Konstituzio Zuzenbidearen katedraduna eta *El Ararteko* liburuaren egileetako bat); eta Garbiñe Biurrun (Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Lan Arloko Salako presidentea).



XXIII. Udako Ikastaroak eta Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXIX. Jardunaldiak

Gasteizen, Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXIX. Jardunaldiak egin ziren, Ararteko erakundeak EHUren XXXIII. Udako Ikastaroen testuinguruan antolatu zituenak. Hauxe zen jardunaldien izenburua: *Familiak, eta beraien beharrak eta erronkak oraingo gizarte- eta ekonomia-egoeran: botere publikoen erantzuna*. Familiak bakarrik eman ditzake afektuarekin, heziketarekin eta harremanekin zerikusia duten hainbat zerbitzu. Ondorioz, Estatuaren lana da zerbitzu horiek ematen jarrai dezan bermatzea, neurri zehatzen bidez lagunduz. Premisa hau oinarritzat hartuta, parte-hartzaileek honako gai hauei buruzko hausnarketa egin zuten:

- Familiaren zereginak eta Estatuak duen betebeharra: familiari sostengua eta laguntza ematea, familiak bere zereginak bete ahal izateko.
- Era askotako familien beharrak eta eskaerak.
- Behar eta eskaera horiei nola erantzuten dieten “familientzako” politika publikoek edo familia-sisteman eragin handia duten politikek.
- Familia batzuk baztertuak edota diskriminatuak izateko arrisku handiagoan jartzen dituzten askotariko faktoreak nola ari diren aintzat hartzen.
- Zer ikasi ahal dugun hurbil dauden herrialdeetako politikak eta jarduerak aztertuz.
- Nola eman familiei kalitateko denbora-tarteak, beren zereginak egin ahal izan ditzaten, batez ere, nekez besterendu daitezkeen zeregin horiek.
- Hori guztia behar bezalako genero-ikuspegitik aztertzea.

Giza-eskubideak ganoraz

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia eta Arartekoa elkartu ziren, **giza-eskubideen berme-sistemi** buruz hausnartzeko. Epailtzak eta Herriaren Defentsa-erakundeak jarduera-gune batzuk partekatzen dituzte. Duela 25 urte legeak argitzen zuen horien bateragarritasuna, norberaren eremua eta eginkizunak zehazten baitzituen. Baina krisialdiak lotura-elementu berri bat ekarri du berekin: azterlan soziologiko guztien arabera, herritarrek gero eta konfiantza handiagoa dute erakunde horietan, izan ere, ezinbesteko erakunde-erreferentziatzat jotzen dituzte, geroan ere zuzenbidea izan dadin pertsonak askatasunean eta berdintasunean erabat garatzeko behar dituen baldintzak egon eta sustatzeko azken bermea.



Estatu soziala eta bizimodu duina

Arartekoak, EHUren Konstituzio Zuzenbidea Sailarekin elkarlanean, *“Estatu soziala eta gizarte-eskubideak zailantzan. Eskubide batzuen egoera Europan, Espainian eta Euskal Herrian, krisiaren gaur egungo testuinguruan”* izenburuko jardunaldia antolatu zuen. Hainbat adituk honako gai hauei buruz hitz egin zuten: gizarte- eta hirigintza-espazio duinetan bizitzeko eskubidea, herritarrek parte hartzeko eskubidea, lan-erreforma, etxebizitza izateko eskubidea eta osasunerako eskubidea.



- Iñigo Lamarca arartekoak hitzaldia eman zuen **Donostiako Giza Eskubideei buruzko XVII. Ikastaroetan**. Ikastaro horiek “Aniztasun afektibo-sexuala; Nazioarteko Zuzenbideak ematen dituen babes erantzunak” izenburupean antolatu ziren.
- Arartekoak hitzaldi bat eman zuen **Gizarte Eleaniztunetako Hizkuntza Eskubideei eta Gizarte Kohe-sioari buruzko Nazioarteko Sinposioan**, Bartzelonan. Ekitaldi hori Kataluniako Sindic de Greugesek antolatu zuen, Hizkuntza Komisarioen Nazioarteko Elkartearekin lankidetzan.



- Bere 25. urteurrena ospatzearen, **Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak** nazioarteko kongresu bat antolatu zuen. Zenbait gai jorratu ziren, besteak beste, justizia trantsizionala; gazte-delinquentzia; adingabekoen auzitegiek hartutako neurriak; pertsonak mugartean salerostea; gizarte-desberdintasunak eta erakunde juridikoak. Arartekoak kongresuaren inaugurazioan parte hartu zuen.



- Bilbon egindako **Erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko udal organoen IX. Topaketan**, arartekoak bere hitzaldian aipatu zituen, alde batetik, herritarrek administrazioaren kontra egiten dituzten keak, eta bestaldetik, administrazio onaren printzipioa krisi garaian.
- Deustuko Unibertsitatean antolatutako **25 urte diru-sarrerak bermatzeko politikak egiten Euskadin** jardunaldiaren barruan, *Diru-sarrerak bermatzeko politiken mugak eta ahalmenak* izenburuko mahai-inguruan parte hartu zuen Lamarcak.
- Arartekoak parte hartu zuen **Sareen Sarea** aurkezteko ekitaldian. Sareen Sarea, Euskadiko gizarte-sektoreko sareak biltzen dituen elkarte da eta gizarte bateratua, inklusioa ahalbidetzen duena eta parte-hartzailea sustatzea du helburu. Gizarte horrek pertsonen eskubideak babestu eta bultzatzea eta haiek arlo guztietan parte hartzea bideratuta egon behar du.
- Gasteizen antolatutako **Dokumentazio Medikoari buruzko XVI. Jardunaldi Nazionalen** barruan, historia klinikoei dagokienez herritarrek planteatzen dituzten arazoei buruz hitz egin zuen arartekoak, "Historia klinikoen konfidentialtasuna eta sarbidea: beharrak asetzen ari al gara?" izenburuko mahai-inguruan.
- Iñigo Lamarcak parte hartu zuen Eman Eskuak –**Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Sindromearen Elkarteak**– antolatutako ekitaldian, Bilbon. Elkarte horrek 2004an eman zion hasiera bere jardunari, gaixotasun bi horiek ezagutarazteko, eta erakundeak eta oro har herritarrak sensibilizatzeko asmoz.



- Elikagaien Bankuak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, boluntarioen lanean oinarritutakoak, eta gure gizarteko **elikagai-soberakinak berreskuratzea** eta behar dutenen artean banatzea dute helburu. Adibidez, **Arabako Elikagaien Bankuak** 2013an ia 13.000 pertsonari eman zien laguntza. Bankuen lana hobeto ezagutzeko asmoz, ararteko eta bere ondokoa erakunde horren presidenteordearekin bildu ziren.



- Julia Hernández arartekoaren ondokoak **Zaintza partekatuari eta berdintasunari buruzko I. Foroan** hitzaldi bat eman zuen, Portugaleten. Foroa, gizonen eta emakumeen eskubideen, aukeren eta tratu-berdintasun eraginkorra lortu nahi duten pertsonak osatutako elkarte batek antolatu zuen, iQual elkarteak, hain zuzen ere.
- Urrian, **FIO-aren Nazioarteko Kongresuan eta XIX. Biltzarrean** egon zen; 2014ko edizioa giza-eskubideak babesteko sistema erregionalei buruzkoa zen. Bertan, Emakumeen Sarea bildu eta emakumeen parte-hartze politikoa aztertu zen. Bilera horretan, Julia Hernández sarearen Europako koordinatzaile hautatu zuten.
- Arartekoaren ondokoak parte hartu zuen **gaixotasun arraroen munduko jardunaldian** antolatutako ekitaldietan. Gaixo horiek arazoak izaten dituzte diagnostikoa eta arreta egokia lortzeko, eta gainera, oztopo ugari daude beharrezko tratamendua aurkitzeko, laborategietan gaixotasun horiek ikertzen ez direlako.



7.3 IKASLEEN BISITAK ETA GASTEIZTXO PROGRAMAREKIKO LANKIDETZA

Haurren eskubideei buruzko ezagutza hedatzea eta gaztetxoaren artean **giza-eskubide guztiak errespetatzen** di-tuen kultura bat sortzea Arartekoaren jarduketa-lerroetako bat da, haurrei eta nerabeei dagokienez.

Hori dela eta, jarraitzen dugu lankidetzan Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailarekin, **Gasteiztxo Albistegia** egiteko lanetan. Hainbat ikastetxetako ikasleek Arartekoaren egoitza bisitatzen dute eta erakundearen jarduerari buruzko datu eta informazioak biltzen dituzte, gero, irradi- edo telebista-programa bat, edo aldizkari bat prestatzeko.

EAEko institutu eta beste hezkuntza-zentro batzuetako ikasle-taldeek ere bisitatzen gaituzte. Besteak beste, **Beasaingo Institutuko** ikasleak hartu ditu arartekoak. (argazkia Beasaingo institutua).



7.4 RAINBOW HAS PROIKETU EUROPARRA AMAITU DA

2014an, Arartekoak koordinatu eta Europar Batzordeak finantzatu zuen **RAINBOW HAS** proiektua amaitu zen. Programa hori RAINBOW izeneko proiektuaren jarraipena zen, eta lehenengoan ere parte hartu genuen erakunde kolaboratzaile gisa. RAINBOW HAS programaren helburua, Europar Batasuneko hainbat herrialdeko haur eta nerabeen sexu-joera eta genero-identitatearekin zerikusia duten eskubideen egoera aztertzea zen, zehazki, eskolaren testuinguruan. Proiektua amaitutakoan, **ondorioak ateratzeko unea** iritsi da.


RAINBOW HAS proiektuak, **egoera zein den zehazteko**, bi arlo berezitan batez ere jarri du arreta. Azterlanak barne hartu ditu zenbait jarduera: **eskola-esparruan**, ikastetxeak eta irakasleak parte-hartzaile izanik; eta **familiaren esparruan**, guraso-elkarteen laguntzarekin. Hori guztia, sexu-joeran edo genero-identitatean oinarritutako abusu- eta diskriminazio-egoerarik gabeko inguru atsegina sortzeko xedez.

Azterketaren emaitzak erakusten du aipatutako eremu geografikoaren arabera **askotariko egoerak** daudela. Bildutako informazioa aztertuta, Europako herrialde batetik bestera **desoreka** ikusten da **LGTBI gazteen eskubideak babesteari** dagokionez. Antzeko emaitza lortu da familia homoparentaletan bizi diren adingabeen eskubideei dagokionez. Eta hori gertatzen da, eskubide horiek babesten dituen lege-esparrua –europarra eta nazioartekoa– onartuta egon arren.

RAINBOW HAS proiektuaren emaitza **argitalpen** batean jaso da: programa garatu bitartean egindako azterlanen emaitzak, baita Bruselan antolatutako mintegi eta bukarako biltzarrean ateratako ondorioak ere.

Argitalpena zenbait ataletan banatuta dago, eta horietako bat azpimarratu nahi genuke: hain zuzen, **22 praktika onak** jasotzen dituen atala. Izan ere, praktika horiek, proiektuan parte hartu duten erakundeekin ustez, ikasgeletan sor litezkeen homofobia edo transfobiarekin zerikusia duten diskriminazio-egoerei aurre egiteko orduan erreferentzia gisa erabili ahal dira.

Emaitzak plazaratzearekin batera proiektua bukatutzat jotzen bada ere, garatutako jarduerak dinamika bat sortu dute, eta hori, programan **parte hartu duten erakunde guztien artean sare bat sortzean** adierazi da. Gainera, proiektu horrekin jarraitu egingo da eta Arartekoak hirugarren fasean ere parte hartuko du, erakunde kolaboratzaile gisa. Aipatutako sarearen helburua, proposamenak eta eskakizunak Europar Batasuneko agintari politikoei helaraztea da.



ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA?

- Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- Erakunde independentea da.
- Dohain eskaintzen den zerbitzua.

ZER EGITEN DU ARARTEKOAK?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGIN KEXAK?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia emanez.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez
- (Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.eus
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.



NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Askatasun hiribidea, 26 - 4.
20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu.

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



DESKARGA
EZAZU
FORMATU
DIGITALEAN:

